



FRUITU LEHORREK ERAGINDAKO ALERGIA

Zer da fruitu lehorrek eragindako alergia?

Fruitu lehorrak dira, frutekin batera, helduen artean alergia gehien eragiten dituzten elikagaiak, baita lehenengotariko alergia-kausa ere haurren artean. Alergia hori oso ohikoa da. Fruitu lehorrek eragindako alergia **organismoak ematen duen aurkako erantzun** bat da, fruitu lehorrak hartu ondoren agertzen dena, **IgE antigorputzetan zehar igarotzen den mekanismo immunologikoaren bidez**.



Fruitu lehorrak zenbait talde botanikoren landare haziak dira. Kakahueteak eragindako alergia oso ohikoa da, baina, seguruenik, hurra da alergia-erreakzio gehien sortzen dituen fruitu lehorra. Kontuan hartu behar da eremu geografikoa edo adina alergia-erreakzioen kausak aldaraz ditzaketean faktoreak direla. Fruitu lehor jakin baten kopuru handiagoa kontsumitzen den herrialdeetan, fruitu lehor horrek eragindako alergien kopurua ere handiagoa izango da.

Fruitu lehorren alergenok

Alergia-erreakzioen eragile gisa dokumentatuta dauden fruitu lehorren kopurua handia bada ere, tartean dauden alergenok familia-kopuru mugatu batean multzokatzen dira. Alergeno gehienak landare-defentsarako proteina- multzoaren baitan, biltegitratzen diren proteina-taldearen baitan edo profilinen taldearen baitan daude. Proteina horiek oso antzekoak izan daitezke talde ezberdinen artean; beraz, erreaktibitate gurutzatuaren fenomenoak agerian uzten dituzte.

Alergeno ezberdinak identifikatuta, fruitu lehor ezberdinen arteko zein horien eta landare-jatorriko beste elikagai batzuen arteko, lore-hautsen eta latexen arteko erreaktibitate gurutzatuak azal daitezke.

Hurraren kasuan, alergeno nagusia (Cor a 1 izenekoak) urkiaren alergeno nagusiaren proteina homologoa da, eta horrek azalduko luke, hain zuzen ere, bien arteko erreaktibitate gurutzatua.

Lipidoak Transferitzeko Proteinen (LTP) presentzia ere zehaztu da. Gaur egun panalergenotzat jotzen dira, eta horren bidez azal daiteke landare-jatorriko hainbat elikagaik eragiten duten alergia.

Almendraren kasuan, amandina edo biltegitratzeko proteina nagusia karakterizatu da.

Gaztainaren kasuan, zenbait polenen arteko erreaktibitate gurutzatua mugatzen duen LTPren





presentzia frogatu da.

Pistatxoaren kasuan (anakardiazeeoen familiakoa), landare-jatorriko beste elikagai batzuen arteko erreaktibitate gurutzatua justifikatuko luketen LTPak deskribatu dira.

Anakardoa familia berekoa (anakardiazeeoak) da, eta pistatxoarekiko erreaktibitate gurutzatua izaten du maiz.

Intxaurraren kasuan, azterketek alergenoren nagusietako batean jarri dute arreta: Jug r 1 delakoan. Albuminen familiakoa da.

Fruitu lehorrek eragindako alergiaren sintomak

Fruitu lehorrek eragindako alergia-erreakzioek intentsitate ezberdineko sintomak eragin ditzakete; besteak beste, ahoko azkura edo azkura orokorra, doministikuak, negar-jarioa edo azaleko gorritasunak, bai eta sintoma latzagoak ere (besteak beste, urtikaria, angioedema edota shocka anafilaktikoa).

Sintomak aldatu egin daitezke alde aurreko sentsibilizazioaren, adinaren, aurretiko esposizioen, hizpide dugun alergenoren eta bestelako alergiak egotearen arabera. Segundo-tarte labur batean edo ingesta egin zein alergenoren aurreko esposizioa gertatu eta 2 ordura ager daiteke.

Erreakzio baten lehenengo seinaleak sudurreko tanta-jarioa, gorputz osoko erupzioa edo mingaineko inurridura izan daitezke, eta oso azkar egin dezake okerrera; besteak beste, honako arazo hauek eragin ditzake: arnasa hartzeko zailtasuna, eztarriko edo gorputzeko beste zonalde batzuen hantura, arterien presioa azkar jaitea, zorabioak edo konortea galtzea. Ager daitezkeen beste sintoma batzuen artean daude urtikaria, goragaleak, sabeleko karranpak eta beherakoa.

